

Lehiakortasun, hazkunde eta garapeneko lurralde-estrategiak¹

Mikel Navarro Arantzegi

Orkestra Lehiakortasuneko Euskal Institutua eta DBS-Deustuko Unibertsitatea

Hogeigarren mendearen erdialdeaz geroztik —eta are indarberrituagoz joan den mendeko azken hamarkadaz geroztik— aztertzaileek argitu nahi izan dute zein diren aurrerapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa azaltzen duten faktoreak eta zein politika behar diren haiek sustatzeko. Une bakoitzean indarrean zeuden marko analitikoetan aurkitzen ziren hutsune eta mugapenei erantzun nahian, ikusmolde berriak planteatzen ziren eta, haiei lotuta, baita politika berriak ere. Era horretan, kontzeptu eta politiken markoak gero eta konplexuago bihurtuz joan dira, ikusmolde berriek ez baitzituzten desagerrarazten ordura arte egondakoak, baizik eta, gehienetan, zeudenei gehitu egiten baitzitzaizkien.

Artikulu honek konplexutasun horretan ordena eta argi pixka bat jartzea du helburu. Ekonomia, gizarte eta ingurumeneko analisi eta politiketako hurbilpen nagusien artean dauden ezberdintasunak eta gabeziak azaldu nahiko lituzke, ulertze eta jakite horiek noraezekoak direlakoan, bai gure errealitatea eraldatzerakoan denon artean finkatutako helburuak lortzeko eta bai taxuzko politika publikoak eta estrategiak eratzeko. Eta ekonomia, gizarte eta ingurumeneko aurrerapeneko politika eta estrategien artean erregioko eta tokiko mailetatik jalgitzen direnak gero baino gero erabakigarriagoak direnez gero, horietan zentratzen da gehienbat.

Horretarako, ahalegintzen da erakusten marko analitiko eta politika horiek nola joan diren sortzen denboran zehar; handik urte batzuetara haietan nola hasten ziren agertzen hutsune edo mugapenak; eta haiei erantzun nahian, nola beste marko analitiko eta politika batzuk ateratzen ziren.

1. Deustuko Unibertsitateko Itziar Navarro irakaskideari eskerrik beroenak eman nahi dizkiot testu hau hobetzeko egindako iruzkin eta proposamenengatik. Nolanahi ere, bertan egon litezkeen hutsegiteak niri bakarrik dagozkit.

Hazkundera, lehiakortasuna eta garapena

Hazkunde ekonomikotik garapenera

Garapen kontzeptuaren esanahia hazkundera baino zabalagoa da. Ekonomi elementuak ez ezik, gizarte eta ingurumenekoak ere barne hartzen ditu. Garapen-teoriak giza garapenerako eta hazkunde ekonomiko jasangarrirako beharrezkoak diren baldintza eta egitura sozioekonomikoez aritzen dira. Ekonomia konbentzionala hazkunde ekonomikoaz arduratu da batik bat, eta garapenaz pentsamolde ekonomiko nagusietatik at zeuden ekonomialariek jardun dute gehienbat.

Hazkunde ekonomikoa eta haren adierazlerik ohikoenak (hala nola BPGa eta produktibitatea) azaltzerakoan, ekonomialariek aldagai esplikatzaile gutxi batzuetara jo izan dute, eskuarki produkzio-funtzio batean sartzen zituztenak. Hasierako azterlanek (adibidez, Solowenak) hazkundera ohiko produkzio-faktoreez (hots, lanaz eta kapitalaz) azaldu nahi izaten zuten. Aktibo ukiezinetan oinarritutako hazkunde-teoria berriagoek, aldiz, BPGaren eta produktibitatearen hazkundera azaltzeko giza kapitalera eta kapital fisikora (azken hori IKTkoa eta ez-IKTkoa berezita sarritan) jotzeaz gainera, aktibo ukiezinetan egindako inbertsioak ere hartzen dituzte kontuan (hala nola I+Gko gastua, diseinukoa, marketin eta merkatu-ikerketakoa, langileen heziketakoa, antolamendukoa eta abar). Gure artean ikuspegi horrekin burututako azterlan baten adibidea INDIZEA dugu, Innobasqueren berrikuntzari buruzko txostenean jasota dagoena.

Lehiakortasuna: enpresena eta herriena

80ko hamarkadatik aurrera, ekonomialarien eta politikarien kezka-gaia aldatu zen apur bat, eta, hazkunde ekonomikoaz eta produktibitateaz jardun ordez, ekonomi lehiakortasunaz mintzatzen hasi ziren. Hazkunde ekonomikoa helburu zuten politikak lehiakortasun-politikak deitzen hasi ziren. Halaber, produktibitatea handitzea helburu zuten industri politikak lehiakortasuneko politikak izendatu zituzten. Areago, oso ekonomialari entzutetsuen esanetara (Krugman edo Porter, esaterako), lehiakortasuna produktibitatearen baliokidea zen.

Hazkundera teoriak hazkunde ekonomikoa eta produktibitatea aldagai gutxi batzuekin azaltzen ahalegintzen ziren; herrien lehiakortasuna (eskuarki, biztanleko BPGaren edo produktibitatearen bidez neurtua) azaldu nahi zuten ekonomialari berriek, ordea, aldagai mordo batera jo izaten zuten. World Economic Forum (WEF) izeneko erakundera, esaterako, *The Global Competitiveness Report* argitalpen ospetsuan, lehiakortasuna esplikatzerakoan ehundik gora aldagaiz baliatzen da, hamabi zutabe edo multzotan sailkatuta ageri direnak: erakundeak, azpiegiturak, ingurune makroekonomikoa, osasuna eta lehen-mailako hezkuntza, goi-mailako hezkuntza eta trebakuntza, ondasun-merkatuen eraginkortasuna, lan-merkatuaren eraginkortasuna, finantza-merkatuen garapena, prestaketa teknologikoa, merkatuaren tamaina, enpresen sofistikazioa eta berrikuntza. Aldagai horiekin guztiekin, WEFk lehiakortasuneko adierazle sintetiko edo trinkoa kalkulatu du, herri batek biztanleko BPG handia lortzeko dituen gaitasunak islatzen dituena.

Herriei aplikaturiko lehiakortasun kontzeptu hori —80ko hamarkadan erabiltzen hasi zena— ez da nahasi behar XX. mendearen hasieratik erabili ohi zen enpresei aplikaturiko lehiakortasun kontzeptuarekin. Areago, lehiakortasun hitza, enpresa mundutik mailegu gisa hartuz, herriei aplikatzen hasten denean, Krugman (1994) bezalako ekonomialari entzutetsuak erabilera horren aurka agertzen dira eta obsesio arriskutsutzat jotzen dute. Enpresei aplikatzen zitzaienean, errentagarritasun ekonomikoaren bidez neurtu ohi zen une jakin bateko enpresa-lehiakortasuna: enpresaren errentagarritasun ekonomikoa bere sektoreko enpresen batez besteko errentagarritasun ekonomikoaren gaintik gelditzen bazen, enpresa horrek abantaila kompetitiboak zituela kontsideratzen zen; eta haren errentagarritasun ekonomikoa sektoreko batez bestekoaren azpitik geldituz gero, lehiakorra ez zela. Dena den, une jakin bateko lehiakortasun-mailari so egin ordez, lehiakortasunaren bilakaerari erreparatu nahi izaten zitzaienean, sarrienik enpresaren salmenten merkatu-kuotaren eboluzioari begiratu ohi zitzaion: enpresaren salmentak haren lehiakideenak baino azkarrago igotzen baziren eta, hori zela medio, haren merkatu-kuota handitzen bazen, enpresa horren lehiakortasuna handiagotu zela ondorioztatzen zen; eta merkatu-kuota murrizten zenean, kontrakoa.

Beraz, herri bat lehiakor joko da baldin eta, nazioarteko merkatuetan lehiatzen ari delarik, bertako herritarrentzat errenta-maila handia (gehienetan, biztanleko BPGaren bidez neurtua) sortzeko gai bada. Aldiz, enpresa bat lehiakor joko da baldin eta, sektoreko beste enpresekin lehiari ari delarik, haien batez besteko ekonomi errentagarritasuna baino handiagoa lortzeko gai bada. Baina, zenbateraino daude erlazionaturik herri bateko lehiakortasuna eta bertako enpresena? Zenbateraino mugatzen dute herri horretako enpresen errendimenduek herriaren lehiakortasuna?

Azterlan enpirikoen arabera, ez dago korrelazio garbirik herri bateko biztanle bakoitzeko BPGaren eta herri horretako enpresen batez besteko errentagarritasun ekonomikoaren artean. Zenbait herrialdetan, bi adierazle horiek balio kontrajarriak dituzte: herri batzuetan biztanleko BPGa apala da, baina enpresen errentagarritasun ekonomikoa garaia; edo, alderantziz, biztanleko BPGa handia da, eta enpresen errentagarritasun txikia. Eta beste zenbait herrialdetan, bi adierazle horien emaitzak norabide berean doaz: biztanleko BPGa eta errentagarritasun ekonomikoa, biak handiak edo biak txikiak dira. Hori dela-eta, ez dago bi lehiakortasun mota horien artean korrelazio estatistikorik, eta herri bateko lehiakortasuna ezin da herri horretako enpresen lehiakortasunaren parekide jo.

Hala ere, herri batek biztanleko BPGa garaia lortu ahal izateko, herri horrek produktibitate handia izan behar du; eta herri horretako produktibitatea ez da handia izango, herri horretako enpresen errendimendua txikia bada. Izan ere, biztanleko BPGa bi osagaien emaitza da: enplegu-tasa (hots, lanean ari den biztanleriaren ehunekoa) eta lanean ari diren langileen ageriko produktibitatea. Areago, epe ertain eta luzera, enplegu-tasaren igoerak, puntu batera iritsita, muga fisiko eta sozialekin topo egiten duenez gero (izan ere, biztanleriaren ehuneko handi batek ez dauka lan egiterik hainbat arrazoiengatik: lan egiteko adinik ez dutelako, erretiratuak edo elbarrituak daudelako...), biztanle bakoitzeko BPGa handitzeko gelditzen den aukera bakarra produktibitatea da. Horixe da, hain zuzen ere, hainbat ekonomialari lehiakortasuna eta produktibitatea baliokidetzat jotzera eramaten dituenak.

Herriaren produktibitate hori, ordea, enpresen errendimenduari lotuta dago. Eta enpresek produktibitate-maila handia erdietsiko dute, ekipamendu berriak eta aurreratuak edukitzeagatik, antolamendu egokiak eta markaz edo teknologiaz berezitutako produktuak izateagatik eta abarregatik. Horrexegatik, biztanleko BPGa handia izango bada, ezinbestez enpresen produktibitateak ere handia izan behar du.

Beste baldintzak berdin mantentzen direlarik, enpresaren produktibitatea handitzen bada, haren errentagarritasun ekonomikoa ere goratuko da, noski. Beraz, enpresen lehiakortasuna ere produktibitateari lotuta dago. Enpresaren kasuan, ordea, produktibitate handiagoari esker lortutako emaitza hori baliteke enpresaren jabeen eskuetara ez joatea. Hau da, enpresa batek produktibitate handiagoari esker eduki lezakeen abantaila konpetitiboa ezeztatuta gelditu daiteke beste zenbait faktoreren eraginez (adibidez, soldatapekoen lan-kostu handiengatik). Eta, horrela, enpresa horretan ustiapeneko soberakin garbiak aktibo osoan hartzen duen ehunekoa (hau da, enpresaren errentagarritasun ekonomikoa) apalagoa izan daiteke, produktibitate txikiagoko beste enpresa lehiakide batzuetan baino.

Laburbilduz, herri bateko herritarrek biztanleko BPG garaia (hots, herri horrek lehiakortasun handia) izan dezaten, enpresen produktibitatea handiagotzea ahalbidetzen duten faktoreetan eragin beharra dago. Hori dela-eta, nahiz eta herri bateko lehiakortasun-adierazleak eta herri horretako enpresen lehiakortasun-adierazleak korrelazio estatistikorik ez izan, herri bateko lehiakortasuna haren enpresen errendimendu edo produktibitatearen araberkoa izango da.

Lehiakortasuna eta garapena

Behin argituta lurralde-lehiakortasunaren eta enpresa-lehiakortasunaren arteko erlazioa, jo dezagun atzera lehiakortasunaren eta garapenaren arteko erlaziara. Lehenago erakutsi bezala, herriaren lehiakortasuna biztanleko BPGari lotu ohi zaio, hots, ekonomi ongizatea islatzen duen adierazle bati. Baina aztertzaile askoren ustez, herritarren ongizatea errenta ekonomikoaren dimentsiora soil-soilik mugatzea txit murriztailea da (areago, errenta ekonomiko hori nola banatzen den kontuan hartzen ez bada). Horregatik, Amartya Sen Nobel saridunak, biztanleko BPGa jo dez, giza garapena neurtzeko beste adierazle batzuetara jotzea proposatu zuen. Zehazkiago, biztanleko errentari buruzko adierazleaz gainera (zeinentzat, biztanleko barne-produktu gordinaren orde, biztanleko errenta nazional gordina hobesten baitzen), biztanleriaren osasun- eta heziketa-maila islatuko luketen adierazleak ere kontuan hartzea proposatzen zuen. Horrela erdietsitako giza garapenaren indizea herri horretan dagoen ezberdintasun-mailarekin ere doitu izan da. Hain zuzen ere, printzipio horiei jarraituz, urtero Nazio Batuek Giza Garapenaren Txostena eta Indizea argitaratu ohi dituzte.


Haatik, Nazio Batuen indize horrek ez ditu aintzakotzat hartzen inguramenari lotutako alderdiak, garapen-teoriek aldeztutakoaren kontra, eta ezta giza eskubide, askatasun eta antzeko gaiak ere. Bitxi samarra bada ere, hutsune horiek gainditzen ahalegindu direnen artean, enpresen eta herrien lehiakortasunari buruzko literatureri

bultzada handiena eman zien egile bat nabarmentzen ari da: Michael E. Porter. Beste zenbait lankiderekin batera, Porterrek gizarte-aurrerapeneko indizea garatu du, non alderdi horiek denak hartzen diren kontuan. Hiru kategorian nagusitan bildutako makina bat adierazleaz osatuta dago Gizarte-aurrerapeneko indizea: gizakien oinarritzko beharrianak (elikatzea, osasun-zerbitzuak, etab.), ongizatearen zimentarriak (jakintzara iristea, ekosistemaren jasangarritasuna, etab.) eta aukerak (pertsonek eskubide eta askatasunak, etab.). (Ikus Porter eta beste, 2016)

Porterren iritziz, ekonomi lehiakortasunaren eta gizarte-aurrerapenaren adierazleak elkarri lotuta daude, eta garapena arrakastatsua izango bada, ingurune ekonomikoa eta soziala aldi berean egokitu beharra dago. Elkarri eman behar diote indar, elkar kontrajarrira egon ordez. Porterren aburuz, ekonomia emankorra eta hazkorra izan dadin, beharrezkoak dira, besteak beste, gero eta langile-kualifikazio edo prestakuntza handiagoak, lan-baldintzetan seguritatea, etxe txukunetan eta auzo seguruetan bizi diren langile osasuntsuak, langabezia ezabatzea eta kutsadura murriztea (kutsadura gaizki erabilitako baliabide fisikoen seinalea baita). Beraz, lehiakortasuneko politikak gizakien ahalmenak eta herritarren bizimodua eta aukerak handitzea helburu duten berariazko programa edo egitarauak barne izan behar dituzte; baina lehiakortasunaren eta produktibitatearen mesederako diren neurrian bakarrik egingo dute horrela. Porterrek berak aitortzen duenez: «Garapen ekonomikoak soil-soilik ez du gizarte-aurrerapena esplikatzen. Ez dago erlazio linealik gizarte-aurrerapenaren eta biztanleko BPGaren balioen artean. Gizarte-aurrerapenaren adierazleak biztanleko BPGaren erregresio-lerrotik desbideratze esanguratsuak erakusten ditu, are handiagoak direnak banakako osagaien eta adierazleen mailan. Horregatik, biztanleko BPGa herri baten errendimendu orokorraren neurri partziala da» (ikus 1. irudia).

Lehiakortasuneko politikak bere barruan egitarau eta politika sozialak aurreikusitako eta gizarte- eta ingurumen-politikekin sinergiak eduki behar dituzten gero, zenbait aztertzailek lehiakortasuneko politika eta estrategien terminoari adiera guztiz zabala ematen diote eta garapen-politiken eta -estrategien parekide egiten dute. Horrela eginez, lehiakortasuneko politikak gizarteari eta ingurumenari buruzko helburuak berez bilatzen dituela iradokitzen da, BPG eta produktibitatea handitzea bilatzen duen indar berberarekin. Baina gorago azaldu denez, ez da horrela: lehiakortasuneko politika eta strategiaren ikuspuntutik, gizarte eta ingurumeneko helburuak instrumentalak dira edo, nahiago bada, helburu ekonomikoen aldean, bigarren mailako helburuak. Horregatik, hobe litzateke lehiakortasuneko politika eta strategiaren izendapena biztanleko BPG eta produktibitatea handitzea azken helburu duten politikentzat bakarrik gordetzea, nahiz eta helburu ekonomiko horiek lortu ahal izateko gizarte- eta ingurumen-politika aurreratuak beharrezkoak direla aitortu. Izan ere, garapen-estrategia eta -politikak integralagoak izango lirateke, hazkunde edo lehiakortasuneko politikak baino, eta ez lituzkete, printzipioz, helburu ekonomikoak lehenetsiko gizarte- eta ingurumen-helburuen aldean. Aitzitik, kasu bakoitzean erabaki beharko litzateke haien konbinaziorik egokiena.

1. irudia. Gizarte-aurrerapenaren indizearen eta biztanleko BPGaren arteko erlazioa 2015ean.



Iturria: Porter (2016).

Lurraldea barneratzea garapenaren eta lehiakortasunaren azterlanetan

Espazioa barneratzea ekonomia- eta garapen-analisietan

Duela gutxi arte, ekonomia konbentzionalaren eredu teorikoetan ez zen ageri lurraldea (hau da, gizartearen ekintzez sortutako espazioa, non jarduera ekonomikoa gauzatzen den). Eta ekonomialariak teoria abstraktutik mundu errealeko jarduera ekonomikoa enpirikoki aztertzea jaisten zirenean, estatua hartu ohi zuten azterketarako oinarritzko unitate, zeina, gehienetan, nazioaren parekide jo ohi zen.

Bestela esanda, garapenaren eta lehiakortasunaren idazlanek estatuen ekonomiak zituzten aztergai. Solowen produkzio-funtzioaren lehenengo kalkuluek Ameriketako Estatu Batuetako ekonomiaren hazkundera esplikatu nahi zuten. Garapen-teoriaren barruan kokatzen ziren aztertzaileak ere (Rostow eta Gunder Frank, esate baterako, elkarrekiko pentsamolde kontrajarrikoak) bat zetozen estatuen garapenaz (bereziki, gutxien garatutakoez) arduratzean. 80ko hamarkadan, lehiakortasun ekonomikoaz sortutako kezka eta lehenengo analisiek estatu baten problematika zuten buruan nagusiki: AEBren errendimendua moteltzea Japoniakoaren aldean. Eta egungo lehiakortasunaren, hazkunderaren eta garapenaren atzean dagoen berrikuntzaren garapena, hedapena eta erabilera esplikatzeko agerturiko berrikuntza-sistemen korrontearen sortzaileek (Freeman, Lundvall, Nelson eta abarrek) nazioak bakarrik zituzten buruan aztergai.

Baina globalizatzearen bizkortzeak gero eta aztertzaile gehiago eraman zituen estatua lehiakortasun- eta garapen-estudioen aztergai bakarra —edo gutxienez nagusia— zela zalantzan jartzera. Horrela, garapenari buruzko ohiko teorien aurrean, Wallerstein-en sistema mundialen teoria agertu zen, zeinaren arabera garapenaren indar erabakitzaileak munduko baldintzak baitira (ikus Wallerstein, 2004). Aldi berean, aztertzaileak jabetzen hasten ziren estatu bereko erregioen artean zeuden garapen-ezberdintasunak kasu askotan Europako estatuen artean zeudenak baino handiagoak zirela; eta, orobat, globalizatzearekin batera jarduera ekonomikoak eta berrikuntzak leku batzuetan kontzentratuta zeudela. Hain zuzen ere, prozesu horiek eta nazioz azpiko mailetan jokatzeko ari diren faktoreak azaltzeko, korrante eta marko analitiko berriak agertu ziren, hala nola berrikuntzako sistema erregionalena (zeinek handik gutxira berrikuntzako sistema nazionalen argitalpen kopurua gainditu zuen), geografia ekonomikoarena, edo erregio- eta hiri-ekonomiarena. Horrela, erregioen lehiakortasuneko eta garapeneko azterketak ugaltzen hasi ziren.

Erregioko eta tokiko azterketak egiteko zailtasunak eta hutsuneak

Erregioko edo tokiko azterketak egiteko arazo larri bat aurkitzen dute ekonomia-lariek: lurralde-maila horietarako ez dagoela datu estatistikorik, batik bat azterketa horiek nazioarteko ikuspegi alderatu batez egin nahi badira. Horrek ekarri zuen nazioz azpiko esparruei buruz egindako azterketa gehienak erregio multzo handiekin egindako analisi estatistikoetan oinarrituta egon ordez, kasu partikularren analisietan oinarrituta egotea. Maizenik, analizatutako kasuak arrakasta handieneko erregio edo tokietara (Silicon Valley, Baden-Württemberg, etab.) mugatuta egoten ziren.

Era horretako azterketak egiteko beste arazo larri bat erregioaren (edo aztergai izango zen lurralde-unitatearen) mugapenean zetzan: unitate administratibo edo unitate funtzional bezala definitu behar zen erregioa? Zer egin erregioaren errealitate ekonomikoaren mugak erregioaren errealitate administratibo, politiko edo kulturalaren mugekin bat ez badatoz? Baliokidetzat har daitezke 29 mila biztanlera iristen ez den Åland (Finlandia) eta 12 milioitik gora biztanle dituen Île de France bezalako NUTS2 edo erregioen aglomerazio-ekonomiak, aktoreak, gobernantza-moduak eta abar?

Bestalde, sistema erregional bati buruz ari garenean, erregio horretako aktoreak eta haien arteko harremanak bakarrik kontsideratu behar ditugu? Edota, sistema erregional horretako osagaiak dira, halaber, sistema horrek beste sistemetakoa aktore eta erakundeekin dituen harremanak? Zuzena da sistema deitzea edo kontsideratzea kanpoarekiko horrenbeste harreman eta jakite-mendekotasun baldin badago?

Ikuspegi erregional edo lokal horrekin egindako azterketei so egiten zaienean, ohar gaitzke, arrakastatsuek izandako erregioen kasuez osatuta egoteaz gainera, azterketa gehienek lurralde maila bateko faktoreak bakarrik (erregionalak, sarrienik) hartzen dituztela aintzat. Lurralde-maila horrez gaindiko politika, mekanismo edo aktoreek lurralde-maila horretan duten eragina bazter uzten da, eta halaber ez dira kontuan hartzen erregio-maila horren barruan dagoen aniztasuna eta erregioz azpiko mailen berezitasunak (hau da, probintziena, eskualdeena edota hiri eta udalerriena).

Bestalde, erregioa aztergaitzat hartzen duten analisiek maiz asko beste bi erredukzionismo izaten dute. Alde batetik, denentzat onuragarriak diren helburuak bilatzen dituen aktore bakar bat izango balitz bezala hartzen dute erregioa, beronetan interes kontrajarriak eta botere-borrokak ere daudela isilpean utziz. Eta bestetik, sistema erregionalaren garapenean gobernu erregionalak jokatzeko duen paperean ipintzen dute arreta guztia, erregioko politika eta estrategien garapenean beste aktoreek jokatutako papera bazter utziz.

Erregioen berrikuntza, lehiakortasun eta garapenari buruzko txostenak

Lurraldeko berrikuntzaren, lehiakortasunaren edo garapenaren maila neurtzeko argitaratzen diren txostenei erreparatuz gero, zera antzematen da: gizarteko eta ingurumeneko arloetan ekonomiako arloan baino askoz datu erregionalizatu gutxiago dagoenez gero, erregioei buruz argitaratu ohi diren txostenak gutxitan ahalegintzen dira haien garapen-maila neurtzen, edo, gehien jota, giza garapenaren indizearen aldaera sinplifikatuak eskaintzera mugatzen dira. Horren adibide dugu *The EU Regional Human Development Index*, Europar Batasuneko erregio guztientzat Europako Batzordearen Joint Research Institute erakundeak argitaratua, Hardemanek eta Dijkstrak (2014) egina.

Txosten gehiago ahalegindu dira erregio kopuru handien lehiakortasuna neurtzen garapena neurtzen baino. Baina, edozein moduz ere, haiek ere ez dira hainbeste. Erregioen lehiakortasun-rankingak ematen dituztenen artean ezagunena *EU Regional Competitiveness Index* (RCI) da, Europako Batzordearen Joint Research Institutetek argitaratu eta Annoni eta Dijkstrak (2013) egina. WEFk *Global Competitiveness Index* txostenean erabilitako metodologiaren antzeko batekin burutu zen, eta laster eguneratuko dute berriro.

Banakako adierazle eta dimentsio partikular ugari adierazle trinko edo sintetiko batean biltzetik erator litezkeen problemak eta eragozpenak ikusita, lehiakortasunaren zenbait aztertzailek nahiago dute horrelako adierazle trinkoek lehiakortasun-rankingik ez argitaratzea, eta erregioek banakako adierazle horietako bakoitzean duten balioa edo posizioa ematera mugatzea. Askotan, banakako adierazle horiek ondorengo kategorietan sailkatuta eskaini ohi dira: (i) zuzkidura edo zimentarriko adierazleak, zeinak, lehiakortasunaren azken emaitzetan eragin arren, epe laburrera emanak datozen eta aldagaitzak diren (adibidez, herriaren tamaina); (ii) inputeko adierazleak, zeinek lehiakortasuna determinatzen duten eta, erregioko aktoreen mendeko izanik, politiken bidez alda daitezkeen (esaterako, enpresek egindako I+G gastua); (iii) bitarteko emaitzen adierazleak (adibidez, enpresen EPO patente kopurua); (iv) azken emaitzen adierazleak (esaterako, biztanleko BPGa). European Cluster Observatoryk Europar Batasuneko erregio guztien datuak eskaintzen ditu aipatutako lau kategoria horien arabera; eta Orkestrak bi urtero argitaratzen dituen lehiakortasuneko txostenetan azaldu ohi du zein den horietako bakoitzean Euskal Autonomi Erkidegoaren posizioa gainerako erregioen aldean (ikus Franco eta beste, 2015).

Berrikuntzak lehiakortasunean duen eragina gero eta handiagoa denez, zenbait erakunde saiatu da neurtzen erregioak berrikuntza-alarrean nola moldatzen diren. Neurketa horien artean ospetsuenetako bat Europako Batzordeak argitaratutako *Regional Innovation Scoreboard* dugu, azkeneko aldiz 2016an argitaratua. Bere jardunbidea lehen aipaturikoa da: dozena bat banakako adierazletatik abiatuz (hirugarren mailako heziketa duen biztanleriaren ehunekoa, sektore publikoaren I+G gastua BPGaren ehunekotan, etab.) adierazle trinko edo sintetiko bat sortzea.

Azkenik, lehiakortasuneko edo berrikuntzako azterketa hauek egiterakoan estudio batzuek nahiago dute erregio (edo nazioz azpiko maila) horretako adierazle espezifikoetara mugatzea; bestebatzuek, ordea, horietaz gainera, beste estatuetakoen aldean ezberdin izanik, estatu horretako erregio guztiei modu antzekoan eragiten dieten adierazleak ere (adib. jabego intelektualak babesteko arautegia) aintzakotzat hartzen dituzte. Lehenengo kasuan, erregioko adierazle denak beste erregio guztietakoen aldean ezberdinak izan daitezke. Bigarren kasuan, ordea, erregioko adierazle batzuen balioa estatu bereko beste erregioetakoen parekoa izango da (estatu horretako erregio guztientzat balio bera aplikatzen delako, beste estatuetakoen erregioetakoen aldean desberdina); eta erregioko gainerako adierazleen balioa, aldiz, ezberdina (bere estatu zein beste estatuetakoen erregioetakoen aldean). Lehen aipaturiko *EU Regional Competitiveness Index* txostenak, esaterako, bi adierazle mota horiek erabiltzen ditu rankingak egiteko: bai berariaz erregioari dagozkionak (adib. erregioaren patenteak) eta bai estatuari dagozkionak (adib. lehen aipaturiko jabego intelektualaren babesak). *Regional Innovation Scoreboard*, *European Cluster Observatory* eta Orkestrak argitaratutako lehiakortasuneko txostenetako analisiak, ostera, erregioen adierazle espezifikoetan bakarrik oinarritzen dira.

Diagnostikoetatik lurralde-politika eta -estrategietara

Industria-, berrikuntza- eta erregio-politiken bilakaera

80ko hamarkadaren geroztik nola literaturan hala politiketan aldaketa esanguratsuak gertatu dira sustapen ekonomikoaren hiru funtsezko alorretan:

- Industri politiketan eta literaturan. Arretagunea makrotik mikrorra pasatzen da; eta mikroaren barruan, txapeldun nazionalak aukeratzetik ingurune lehiakorreko eta klusterreko politiketara, eta enpresa handi-mandiak lehenestetik enpresa txiki eta ertainei kontu gehiago egitera.
- Berrikuntzako politiketan, I+Gan eta jakintza formalean oinarritutako berrikuntzako eredu lineal nagusigotik, berrikuntzaren ikuspegi interaktibo eta sistemiko batera igarotzen da, I+Gan bakarrik edo nagusiki oinarrituta ez dagoena eta izaera inplizitu eta tazituko jakintza aintzatesten duena.
- Erregio-politiketan, erregio aberatsetatik txiroetara transferentziak egiten eta erregio txiroetara inbertsio eskergak erakartzen ahalegintzetik erregioetan garapen endogenoa sustatzera pasatzen da.

Beraz, ordura arte bakoitza bere aldetik, modu beregainean, zebiltzan hiru politika garrantzitsu horietan elkarretaratze bat hasten da, hiruretan lurraldea eta berrikuntza politiken jardueren funtsezko ardatz bihurtzen direlako. Hain zuzen ere, lurraldea eta berrikuntza marko analitikoaren funtsezko ardatz gisa hartzen dituzten hainbat eskola edo korrante teoriko azaltzen dira: barruti industrialak, milieux berritzaileak, tokiko produkzio-sistemak, ikasteko erregioak, erregioko berrikuntza-sistemak etab. Horietatik, aztertzaileei eta politika-egileei erregioko berrikuntza-sistemen korrantea egin zaie deigarrien (ikus Navarro 2009; edota *Ekonomiaz* aldizkariak urte horretan argitaratutako zenbaki monografikoa gai horretaz).

Lehenengo lurralde-estrategien hutsuneak

Berrikuntzako erregio-sistemen marko analitikoan oinarrituz, 90eko hamarkadaren lehenengo erdialdetik aurrera erregioek berrikuntzako eta garapen ekonomikoko estrategiak egitea bultzatzen hasi zen Europako Batzordea. Haatik, orduko estrategia-saioek hainbat hutsune izan zuten.

Agian hutsunerik funtsezkoena da ordura arteko literaturan esplizituki zehaztuta edo hausnartuta ez egotea lurralde bateko garapen-estrategia zerk mugatzen edo karakterizatzen zuen. Izan ere, lehenago lehiakortasun kontzeptuarekin gertatu zen bezalaxe, aztertzaileek eta politika-egileek «estrategia» hitza enpresen mundutik (edo zehazkiago esanda, Enpresen Zuzendaritzatik) inportatu zuten, eta ez zuten pentsatu bere edukian eta erabileran zer-nolako ezberdintasunak dauden enpresari aplikatu ordez lurraldeari aplikatzen zitzaionean.

Porterrek hasi zuen horri buruzko hausnarketa, *Microeconomics of Competitiveness* (MOC) ikastarorako garatu baina sekula argitaratu ez zen materialean. Tamalez, ondorengo artikulu eta liburuetan ez zuen jaso edo sakondu. Porterren iritziz, enpresa-alorrean jazotzen den legez, lurralde-alorrean estrategia bat izatea ez datza politika guztiak ongi edo modu eraginkorrean gobernatzen saiatzean, baizik eta lurralderako balio-proposamen berezia (munduan bakarra) izatean. Enpresa-alorrean, balio-proposamen berdingabe hori zehazteko enpresak erantzun berezi bat eman behar zien hiru oinarritzko galderari (alegia, zer produktu ekoiztiko zituen enpresak, zein bezero edo premia asetzeko eta nola iritsiko zen bezeroengana), eta modu berezian antolatu bere barne-baliabide eta ahalmenak. Bada, Porterren irudiz, lurralde-estrategiaren balio-proposamen berezia zehaztuko bazen, beste hiru galderari erantzun beharra zegoen: (i) zein kluster edo ekonomi jardueratan gailendu nahi zuen lurralde horrek; (ii) horretarako, zein aktibo zeuzkan edota garatuko zituen, horrela enpresak lurralde horretan koka zitezten; eta (iii) zer paper jokatu zuen lurraldeak ingurukoaren aldean, makro-eskualdearen barruan eta oro har ekonomia globalean.

Espezializazio adimentsuaren estrategien literaturak lurraldeen berrikuntzako estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko orientabide praktikoak eman baditu ere, lehen aipaturiko alde aurretiko gogoeta hori egiteke aritu da. Alde horretatik, lurralde baten lehiatzeko estrategia garatzeko saioren kontziente eta sakonena, Arangurennek eta bestek (2012), Navarrok eta bestek (2013) eta Valdalisok eta Wilsonnek (2015) egin

dituzte. Aipaturiko autoreen ideia nagusiekin osatu dugu hurrengo taula eta bertan ikus daitekeenez, bai helburuetan, bai edukian eta bai prozesuetan (edo bestela esanda, «zertako», «zer» eta «nola» galderetan) lurraldearen estrategiak eta enpresarenak ezberdintasun galantak dituzte.

Taula. Enpresen eta lurraldeen estrategien arteko alderatzea.

ENPRESA	LURRALDEA
<ol style="list-style-type: none"> 1. HELBURUAK (ZERTARAKO) 2. EDUKIA (ZER) <ul style="list-style-type: none"> • Merkatu-kokapena <ul style="list-style-type: none"> – Zein produktu – Zein bezero eta premia – Nola iritsi bezeroetara • Zein barne-baliabide eta gaitasun 	<ol style="list-style-type: none"> 1. HELBURUAK (ZERTARAKO) 2. EDUKIA (ZER) <ul style="list-style-type: none"> • Zein alor (ekonomiko, teknologiko...) • Zein aktibo • Zein aktore • Zein harreman kanpokoekin • Zer barne-artikulazio
<ol style="list-style-type: none"> 3. PROZESUA (NOLA) <ul style="list-style-type: none"> Partaidetza bultzatuz, baina erabakiak betebeharrekoak dira enpresako kide guztientzat 	<ol style="list-style-type: none"> 3. PROZESUA (NOLA) <ul style="list-style-type: none"> Partaidetza bultzatuz, baina erabakiak ez dira betebeharrekoak lurraldeko kide guztientzat

Berrikuntzako erregio-sistemen markotik edan duten estrategiek eta politikek izandako bigarren hutsune larria lehentasun edo politika horizontalak bakarrik kontsideratzea da, eta lehentasun edo politika bertikalak bazter uztea. Lehentasun eta politika horizontalak era guztietako enpresek eta sektoreek dituzten arazoak konpontzera bideratzen dira (adibidez, erregioiko berrikuntza-sistemako I+Gko azpiegiturretatik enpresetarako jakintzaren transferentziarik eza gainditzera). Lehentasun eta politika bertikalek, aldiz, zientzia, teknologia, kluster, sektore... edo jarduera ekonomiko zehatz batzuen alde apustu egiten dute.

Berrikuntzako erregio-sistemaren korrantean oinarritutako estrategiek beste hutsune larri bat zuten: oso goitik beherakoak (*top-down*) ziren. Lurraldearen strategiaren diseinuan eta abian jartzean parte hartu ohi zuen aktore bakarra gobernu erregionala zen (gehienetan, kanpoko aholkularien laguntzaz), eta gobernuak ez ziren gainerako aktoreak (jakintzari lotutako erakundeak, enpresak eta gizarte zibila) alboratuta gelditzen ziren.

Espezializazio adimentsurako estrategiak (S3)

Hamarkada honen hasieran, Europako Batzardea konturatu zen berak ordura arte bultzatutako erregioen estrategia gehienak oso emaitza urrikoak zirela, besteak beste, gorago aipatutako hutsune edo gabeziengatik. Orduan, beste lurralde-estrategia tanda berri bat abian jartzea erabaki zen Europar Batasuneko erregio guztietan. Europako herriak eta erregioak horretara eramateko, Europako egiturazko funtsak eskuratuko bazituzten, alde zuzeneko baldintza gisa, berrikuntzako estrategia bat egina eduki behar zutela finkatu zuen. Estrategia mota berri horiei «Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategiak» izena eman zitzaion, nahiz eta laburtze aldera RIS3 edo S3 ere deitzen zaien, horiek baitira *Research and Innovation Smart Specialisation Strategies* ingeleseko izenaren laburdurak.

RIS3 estrategien ezaugarriak nabariak honakoak dira:

- RIS3 estrategien arabera, inbertsioak ikerketan-garapenean-berrikuntzan (I+G+Ban) kontzentratu behar dira, eta ez hainbeste inbertsio fisikoetan (lagunarteko hizkeran, «adreilu eta porlanean»). Noski, lurralde aurreratuenetan hazkunde eta garapen ekonomikorako faktorerik erabakigarrienak jakintza eta berrikuntza dira, eta horregatik bidezkoa da haiek aurrera eramateko berariazko estrategiak izatea. Baina haietara bakarrik mugatuz gero, baliteke hazkunde eta garapenerako beharrezkoak diren beste faktoreak bete gabe gelditzea. Areago, nahiz eta Europatik gomendatu RIS3 estrategiek arrazoi teknologiko eta ekonomikoei ez ezik, gizartearen erronka sozial handiei ere erantzutea (hala nola zahartzea, aldaketa klimatikoa, etab.), berez ez da galdatzen RIS3ak garapen integraleko estrategiak izatea, ekonomi garapenekoaz harantzago.
- RIS3 estrategiek lehentasun eta politika horizontalez gainera, lehentasun eta politika bertikalak ere eskatzen dituzte. Izan ere, enfasi edo hanpadura lehentasun bertikalean jartzen da. Gainera, aukeratutako lehentasun bertikalen kopuruak txikia izan behar du. Bestalde, haien izenak beste gauza bat iradoki balezake ere, estrategia horiek dibertsifikazio adimentsu bat lortu gura dute, hau da, lurraldeak dituen indarguneetatik abiatuta, eraldaketa produktibo bat. Hori horrela, espezializazio adimentsuak esan nahi du apustuak lehentasun gutxi batzuetan kontzentratu behar direla, «denetara ailegatzeko» ahalegindu ordez. Eta, aitzitik, ez du inola ere esan nahi erregioan egiten ari diren gauzetan bakarrik zentratu behar dela eta haietatik ez atera, dibertsifikazioari bizkar emanez.
- Lehentasun bertikalak aukeratzeko «aurkitze ekintzaile» (entrepreneurial discovery process) bat behar da, non «helize laukoitze»ko elementu guztiek parte hartu behar duten: gobernuak, enpresak, jakintzari lotutako erakundeak eta gizarte zibila. Gobernuak ez dauka lehentasun bertikalak aukeratzeko eta aurkitze ekintzailea aurrera eramateko ez jakintza eta ez gaitasun nahikorik. Horregatik, estrategia mota berri hori gauzatzeko, gainerako aktoreen jakintza ere behar da. Eta horrek guztiak eskatzen du gobernantza-molde berriak, partaidetzan oinarritutakoak, abian jartzea.

Arestian aipaturiko ezaugarriez aparte, RIS3 estrategien diseinua orientatzeko Europako Batzordeak argitaratu zuen gidak sei urrats bereizten zituen estrategia horien eraikuntzan (ikus Foray eta beste, 2013). Lehenengo, RIS3 estrategiek erregioaren testuinguruaren eta berrikuntzaren ahaleraren analititik abiatu behar zuten, betiere nazioarteko ikuspegi alderatu batez egina. Bigarrenik, RIS3 estrategiek gobernantza inklusiboko egiturak ezarri behar zituzten, helize laukoitzaren hastapenetik abiatuz. Hirugarrenik, RIS3 estrategiek erregioaren etorkizunaz ikuskera partekatua sortu behar zuten. Laugarrenik, RIS3 estrategiek lehentasun bertikalen kopuru mugatu bat finkatu behar zuten. Bosgarrenik, RIS3 estrategiek ibilbide-orri bat zehaztu behar zuten, aurrekontuan islatutako politiken mix egoki batekin eta sektore pribatuaren inplikazioarekin. Eta seigarrenik, RIS3 estrategiek monitorizatzeko eta ebaluatzeko bideak eduki behar dituzte.

Lurralde-estrategiak Euskal Herrian

Euskal Herriko hiru erregio-mailako administrazioek (EAEkoak, Nafarroakoak eta Akitaniakoak) bere RIS3 estrategiak Europako Batzordeari aurkeztu dizkiote. Hirurak modu guztiz independentean prestatu ziren, haien arteko lankidetzak mekanismorik aurreikusi gabe. Dena dela, duela gutxi, Baionako Merkataritza eta Industriako Ganbara buru delarik eta hiru lurraldeetako kidez osaturik, COMPETITIVEKO izeneko interreg proiektu europarra abian jarri da. Proiektu horren barruan, hiru lurraldeen mugaz gaindiko lankidetzak nola bultzatu aztertzen ari da bai eta, hiru lurraldeen RIS3 estrategiak elkarrekin alderatuz, lehentasun eta puntu komun eta sinergiak identifikatzen ere. Idazlan labur honetan ez dago hiru lurraldeetan onartutako estrategien ezaugarrien azalpen xehatua egiterik. Horren ordez, prozesu horien erronkak eta konplexutasuna erakusteko asmoz, EAEn aurrera eramandako prozesuaren ezaugarri esanguratsuenak azaltzen ahalegingunduko gara.

Lehenik eta behin, Europako Batzordeari Eusko Jaurlaritzak aditzera emandakoaren arabera, berrikuntza onartutako Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (2020-ZTBP, laburtu beharrez) da EAEko RIS3 estrategia. Kontuan eduki behar da, alabaina, 2020-ZTBP «Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 marko estrategikoa» osatzen zuten 14 planetatik bat dela. Marko estrategikoko horrek EAEko hazkunde iraunkorra eta giza garapena zituen helburu. Eta 2020-ZTBP, zehazkiago, ekonomiaren susperraldiari eta hazkunde iraunkorrari lotzen zitzaion.

Nahiz eta RIS3 horiek berrikuntza integraleko estrategiak izan behar duten (hau da, berrikuntza modu zabalean ulertzen dutenak, I+Gtik eratorritakora bakarrik mugatu gabe), EAEn kasuan 2020-ZTBP planak ez ditu I+G+Barekin zerikusia duten faktore guztiak biltzen. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzak I+G+Barekin zerikusia duten beste hainbat plan onartu ditu, 2020-ZTBPtik kanpo daudenak, hala nola unibertsitateen plana, lanbide-heziketako plana, berrikuntza publikoaren plana, industrializazio-plana, nazioartekotze-plana, inbertsio publikoaren plana, ingurumen-plana, etab. Eta horietako bakoitzean plan horrek beste planekin dituen loturak aipatzen badira ere, egiazki bakoitza besteetatik modu guztiz independentean egin da, eta 2020-ZTBP planak ez du funtzionatu aterki moduan, zeinaren mendea I+G+Barekin zerikusia izango zuten gainerako plan guztiak egongo ziren.

2020-ZTBP plana lantzeko prozesuan Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Idazkaritza Nagusia izan da buru, eta goitik beherako (*top-down*) eredu bati jarraitu zaio nagusiki. Plana Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluan (ZTBEKn) foru-diputazioetako, jakintzako erakundeetako (hots, unibertsitate eta zentro teknologikoetako) eta enpresa batzuetako ordezkariekin kontsultatu bazen ere, planaren ez zen parte-hartze zabaleko prozesu baten fruitua izan. Hala eta guztiz ere, diseinu-alditik inplementazio-aldira igaro denean, planean aurreikusitako lehentasun bertikal guztietan talde pilotuak sortu dira eta gobernuak ez diren aktoreen parte-hartze zabalerako aukera ireki da. Izan ere, talde pilotu horietan, Administrazioaren ordezkariak ez ezik, jakintzako erakundeak eta kluster elkarteak ordezkariak ere parte hartzen dute. Nolanahi ere, oraindik gizarte zibileko ordezkarien parte hartzea arraz txikia da.

2020-ZTBP egiten ari zen bitartean estrategiaren gobernantzaren egituran ere aldaketa esanguratsuak egin dira. Gorago aipatutako ZTBKren osaera aldatu da, bertan agente berriak barneratu baitira (adib. enpresen eta zentro teknologikoen ordezkariak). Batzorde zientifiko bat sortu da, ZTBKri eta Eusko Jaurlaritzari aholkuak emateko. Innobasquek daraman idazkaritza tekniko batez lagunduta, mandatari bat izendatu da, prozesu guztia bultzatzeko eta koordinatzeko arduraz. Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko batzorde bat funtzionatzen hasi da, hau bezalako zeharkako politiketan txit eragin gaiztoa zuen gobernuko sailen zatiketa gainditze aldera. ZTBPren eta foru-diputazioen jarduerak koordinatzeko asmoz, erakunde-arteko batzorde bat bizkortu da. Eta arestian esan bezala, zazpi talde pilotu jarri dira abian, RIS3an identifikatutako hiru lehentasun estrategiko bertikaletan eta lau aukera-nitxoetan.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak sustatutako RIS3aren diseinu- eta inplementazio-prozesuarekin batera, EAEko foru-diputazio, lurralde historikoetako hiriburu eta eskualde batzuk RIS3aren hastapenetan oinarritutako garapen ekonomikoko ekimen estrategikoak bultzatzen ari dira. Orokorrean, ekimen horiek Eusko Jaurlaritzak sustatutako RIS3an ezarritako lehentasunak kontuan hartzen dituzte, haien esparruan nola indartu edo sakondu litezkeen ikusiz. Baina zenbait kasutan, EAE osorako aintzat hartu ez diren, baina haien esparrurako estrategiko izan litezkeen jarduerak lehenestea eta laguntzea planteatzen dute.

Lurralde maila ezberdinetan agerturiko RIS3ko prozesu horiek agerian jartzen dute lurralde-estrategia bat gobernu jakin baten estrategiaz harantzago doala. Lurraldeko estrategia lurraldean diharduten agente guztien estrategien bilgunea da. Era berean, abian jarritako ekimenak ikusita, hauxe ondoriozta liteke: koordinazioan emandako aurrerapausoak gorabehera, oraindik ez dago lurralde-maila bakoitzeko agenteek bultzatutako prozesuen benetako integrazioerik (prozesu horrek, aldi berean *top-down* eta *bottom-up* noranzkoetan lan egin beharko luke).

Laburpena eta ondorioak

Ekonomialariak bere aztergaiaren esparrua eta arreta-gunea aldatuz eta zabalduz joan dira. Hazkunde ekonomikoa aldagai gutxi batzuekin azaltzen ibiltzetik, herrien lehiakortasuna aldagaia frankoz azaltzera igaro dira. Baina ongizatea eta gizarte aurrerapena ekonomi hazkundeaz eta lehiakortasunaz baino harantzago daudela oharturik, politiken bitartez bilatzen diren helburuak eta haiek determinatzen dituzten aldagaiak zabaltzeari ekin zioten.

Gainera, jarduera ekonomikoa espazioan gertatzeak inplikazioak dituela ohartu ziren. Espazio horren ezaugarriak, baldintzatzeak eta are gailentasuna ere ezberdinak dira munduko, estatuko, erregioko edo tokiko mailetan. Eta jende askok uste zuenaren kontra, globalizatzeak ez du ekarri erregio eta tokiko espazioen ahultzea, kontrakoa baizik: gaur egun lehiakortasuna eta garapena ekarriko duten berrikuntzan eta faktore mikroetan, neurri handi batean, estatuaz azpiko faktoreek eragiten dute. Horrek ekarri du erregio-mailako marko analitikoek eta politikek berebiziko garrantzia hartzea azkeneko bi hamarkadetan.

Baina ez da nahikoa erregio-mailako politikak izatea eta politika horiek era eraginkorrean gobernatzea. Beharrezkoa da politika horiei zentzua emango dien estrategia bat ere. Erregio-estrategien lehenengo loraldia 90eko hamarkadan gertatu zen, baina estrategia horiek hutsune eta mugapen ugari erakutsi zuten. Bigarren loraldia azken bost urteetan gertatu da, Europako Batzordeak Europar Batasuneko herriei eta erregioei, berak ematen zituen funtsak eskuratu ahal izateko, Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategiak zehaztea eskatu dienean. Estrategia horien arabera, inbertsioak I+G+Ban zentratu behar dira, lehenetsun bertikal gutxi batzuk ezarri behar dira eta aurkikuntza ekintzailea eramateko gobernantzako molde berriak (helize laukoitzeko agenteen parte-hartzean oinarrituak) behar dira.

Euskal Herria banatuta dagoen hiru erregio administratiboetan ere estrategia hauek abian jarri dira. Ezbairik gabe, estrategia-molde berri horiek aurrerapauso bat dira orain arte egondakoen aldean. Baina, hala ere, oraindik ere hutsune eta mugapen dezente agertzen dute: hiru erregio administratiboetan era independentean eta elkarrekiko lankidetzako mekanismorik gabe diseinatu dira; oro har, ez dira estrategia integralak; eta maila anitzeko gobernantza inklusibo bat iristeko oraindik elementu asko falta dira. Estrategia, oraindik ere, gobernuarena izango balitz bezala ikusten da, eta ez lurraldearena.

Bibliografia

- Annoni, P. eta Dijkstra, L. (2013): *EU Regional Competitiveness Index RCI 2013*, Joint Research Centre, European Commission, Publications Office of the European Union, Luxenburgo.
- Aranguren, M.J.; Magro, E.; Navarro, M. eta Valdaliso, J.M. (2012): *Estrategias para la construcción de ventajas competitivas regionales. El caso del País Vasco*, Marcial Pons, Madril.
- Conseil Régional d'Aquitain (2014): *Stratégie de spécialisation intelligente en Aquitaine S3 2014 - 2020*.
- Foray, D.; Goddard, J.; Goenaga, X.; Landabaso, M.; McCann, P.; Morgan, K.; Nauwelaers, C. eta Ortega-Argilés, R. (2012): *Guide to Research and Innovation Strategies for Smart Specialisations*, European Commission, Brusela.
- Franco, S.; Murciego, A.; Navarro, M. eta Alberdi, A. (2015): *Cuadernos del Informe de Competitividad del País Vasco 2015. Número 1 Diagnóstico de Competitividad*, Instituto Vasco de Competitividad-Universidad de Deusto, Donostia.
- Gobierno Vasco (2015): *PCTI Euskadi 2020. Una estrategia de especialización inteligente*, Bilbo.
- Gobierno de Navarra (2016): *Actualización de la estrategia de especialización inteligente de Navarra*.
- Hardeman, S. eta Dijkstra, L. (2014): *The EU Regional Human Development Index*, Joint Research Centre, European Commission, Publications Office of the European Union, Luxenburgo.
- Hollanders, H.; Es-Sadki, N. eta Kanerva, M. (2016): *Regional Innovation Scoreboard 2016*, Publications Office of the European Union, Luxenburgo.
- Innobasque (2016): *Informe Innobasque de Innovación 2016*, 2016ko azaroa.

- Jahan, S. (zuz.) (2016): *Human Development Report 2015*, United Nations Development Programme (UNDP), New York.
- Krugman, P. (1994): «Competitiveness. A Dangerous Obsession», *Foreign Affairs*, **73**(2), 28-44.
- Navarro, M. (2009): «Berrikuntzako sistema erregionalak eta klusterrak. Literaturaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren erronkak», *RIEV, Revista Internacional de Estudios Vascos*, **54** (1), 11-47.
- Navarro, M.; Gibaja, J.J.; Franco, S.; Murciego, A.; Gianelle, C.; Hegyi, F.B. eta Kleibrink, A. (2014): «Regional benchmarking in the smart specialisation process: Identification of reference regions based on structural similarity», *S3 Working Paper Series* 03/2014.
- Navarro, M.; Valdaliso, J.M.; Aranguren, M.J. eta Magro, E. (2013): «A holistic approach to regional strategies: The case of the Basque Country», *Science and Public Policy*, **41**, 532-547.
- Porter, M. (1998): *On Competition*. Boston, Harvard Business Review.
- , (2016): *Microeconomics of Competitiveness*, Institute for Competitiveness and Strategy, Harvard.
- Porter, M.; Stern, S. eta Green, M. (2016): *Social Progress Index 2016*, Social Progress Imperative, Washington.
- Schwab, K. (ed.) (2016): *The Global Competitiveness Report 2016-2017*, World Economic Forum, Geneva.
- Valdaliso, J.M. eta Wilson, J.R. (ed.) (2015): *Strategies for shaping territorial competitiveness*, Routledge.
- Wallerstein, I. (2004): *World-Systems Analysis: An Introduction*, Duke University Press, Durham, North Carolina.